



MONCHO REBOIRASEN OMENEZKO MANIFESTUA BERE HERIOTZAREN 35. URTEURRENEAN

1975ko abuztuaren 12ko egunsentian polizia frankistak tiroz akabatu zuen Xosé Ramón Reboiras Noia, Ferrolen. 25 urte zituen, eta Unión do Pobo Galegoko (UPG) zuzendaritza nazionaleko kide zen. Bere heriotza erakunde politiko horren gaineko errepresioaren adierazpen gordinena izan zen, izan ere, egun haietan militante ugari atxilotu, bahitu, torturatu eta erbesteratuak izan baitziren.

Franco hiru hilabete beranduago hilko zen, eta diktadurak bere oinordekoen eta oposizio posibilista baten arteko akordioa dela medio Trantsizioa abiatu zuen. Ondorioz, baldintzatutako demokrazia bat sortu, eta ezinbesteko haustura eta inguruko estatu europarreko homologazioa baztertu egin ziren. Operazio honen ardatza konpromisozko Konstituzio bat izan zen. Horren atzean itun tazitu bat zegoen Errepublikaren aurkako estatu kolpearen ondorengo genozidioa, eta geroago herriaren askatasuna defendatu zituzten pertsonen hilketa selektiboak ezkutatzeko. Moncho Reboiras pertsona horietako bat izan zen.

Hogeita hamabost urte baino gehiagok pasatu behar izan zuten PSOEren gobernu batekin 52/2007 Legea, Memoria Historikoaren Legea, agertzeko. Haren bidez isilezko ituna apurto, eta demokraziaren aldeko borrokan era guztietako bidegabekeriak jasandakoei zegokien errekonozimendua eskaintzeko aukera agertu zen. Instituzioen utzikeria eta legearen beraren hutsuneak, ordea, aukera hori alferrik galtzera eramango zuten Memoria Historikoaren aplikazioaren aldeko mugimendu sendo bat agertu ez balitz.

Horrela, eta familiak eskatuta, Ministro Kontseiluak onartu behar izan zuen Moncho Reboirasek legez kontrako jazarpenera eta hil arterainoko biolentzia jasan zituela bere militantzia politiko nazionalista eta borroka sindikalarengatik. Diktaduran eta Gerra Zibilean legez kontrako jazarpenera eta biolentzia jasandakoen ohorea aldarrikatzen duen legea aintzat hartuta, Justizia Ministroak Moncho Reboirasen ohorearen aintzatespen bat eskaintzen du eta hala, demokrazia koldar batek "Galizia martiri"aren gainean ezarri zuen ikusezintasun egoera gainditu egiten da.

"Badira pertsona batzuk bizitza osoan borrokan dihardutenak eta horiek dira ezinbestekoak" dioen Bertolt Brechten poema ezagunak, Moncho Reboirasen aurrean jartzen gaitu. Inoiz beste batzuek eskatuta, Galizia aske eta herrikoi baten alde eraman zuen borroka, inoiz bere kabuz erabakitako jarrera politiko- iraultzaileak bai intelektualak, kulturalak, sindikalak, antolatzaileak, agitatzaileak edo armatuak, bere ingeniari teknikoko ikasketek eskainiko zioten bizitza profesional eroso utzi eta klandestinitateko bizitza arriskutsua hautatzera eraman zuten.

Beti entzuteko eta ulertzeko prest, baita hitz egiteko eta argudiatzeko ere; irakurle amorratua; sintesi eta antolaketarako gaitasun handikoa; xumea eta burutsua, Monchok lasaitasuna eta segurtasuna islatzen zuen bere inguruan, berak egingo ez lukeenik inori eskatu gabe. Horra hor bere lidergoa.

Instituzioen errekonozimenduarekin Moncho Reboiras galiziar zintzo guztien ondarea da dagoeneko. "Galizian beteko da martirien borondatea", esan zuen Castelaok, eta bere hitzek isla dute orain Moncho Reboirasek Galizia burujabe, demokratiko eta herrikoi baten alde utzitako oroitzan. Emango ahal digu horrek egunero bide beretik jarraitzeko indarra.